

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak eta Gas Natural Fenosak baliabiderik gabeko bezeroei energia-hornikuntza ziurtatzea adostu dute

Zerbitzua ordaintzen ez bada, konpainiak zerbitzuari eutsiko dio Eskubide Sozialetako Departamentuak larrialdiko laguntza bat kudeatzen duen bitartean zintzilik dauden fakturak ordaintzeko

Martes, 23 de febrero de 2016

Foru Gobernuak eta Gas Natural Fenosak gaur, asteartea, otsailak 23, lankidetzaren hitzarmen bat sinatu dute konpainia horretako bezero nafarrei energia-hornikuntza ziurtatzeko, fakturak ordaintzeko behar besteko baliabide ekonomikorik ez dutenei, hain zuzen.

Testua gaur goizean izenpetu dute Nafarroako Jauregian Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparrak eta Gas Natural Fenosako ipar-ekialdeko zonaldeko Txikizkako Negozioen ordezkari Fernando Sanzek. Gogora ekarri behar da, berriki, Laparra lehendakariordeak antzeko ezaugarriak zituen beste hitzarmen bat sinatu zuela Iberdrolarekin.

Lortutako akordioaren arabera, zerbitzua ordaintzen ez bada, konpainiak zerbitzuari eutsiko dio Eskubide Sozialetako Departamentuak larrialdiko laguntza bat kudeatzen duen bitartean zintzilik dauden fakturak ordaintzeko. Gainera, Gas Natural Fenosak hornikuntza berehala berrezarriko dela ziurtatuko du jadanik zerbitzua etenda balego.

Babes hori beren ohiko etxebizitzako gasa edo elektrizitatea Gas Natural Fenosarekin kontratatuta duten bezero guztiei aplikatuko zaie, baldin eta Nafarroan bizi badira eta prestazio ekonomiko baten onuradun izan badaitezke (aurrez balorazioa teknikoa eginda eta gizarte-zerbitzuetan eskaera egin ondoren) larrialdi sozialeko egoeretan bizirauteko oinarrizko beharrei erantzuteko.

Enpresak emandako datuen arabera, Gas Natural Fenosak gasa Nafarroako etxeen % 70i ematen die eta elektrizitatea, berriz, % 8ri.

Bere gain hartutako konpromisoak

Hitzarmenaren esparruan (urtebeteko indarraldia izango du eta urtebeteko epetan luzatu ahalko da), Gas Natural Fenosak egoera



Miguel Laparra lehendakariordea eta Fernando Sanz, lankidetzaren hitzarmena sinatzen.

txarrean dauden beren bezeroei elektrizitatea edota gasaren hornikuntza ez eteteko konpromisoa hartzen du, baldin eta egoera hori gizarte-zerbitzuetako profesionalek egiaztatzen badute prestazio ekonomiko bat emateko kudeaketa egiten den bitartean; prestazio hori hornikuntza horretatik sortutako zorra ordaintzeko erabiliko da.

Gas Natural Fenosak konpromiso horri hiru hilabetez eutsiko dio; nahikoa denbora da laguntza ordaindu eta zintzilik dauden fakturak ordaintzeko. Energia-enpresak ez dio inolako interes, komisio edo beste gastu gehigarririk eskatuko bezeroari, birkonektatzekoa salbu hornikuntza etenda egongo balitz jadanik.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak Gas Natural Fenosarekin ez du nolako konpromiso ekonomikorik bere gain hartzen; beraz, hitzarmen horrek ez dio Administrazioari inolako kostu zuzenik eragiten.

Energia-pobretasunari aurre egin beharra

Hitzarmen hori Eskubide Sozialetako Departamentuak sustatutako ekintzen barnean sartzen da pobrezari aurre egiteko asmoz; kasu honetan, "energia-pobretasuna" izenekoak familia bati gutxieneko energia-zerbitzu kopuru bat ordaintzen ez dio uzten bere oinarriko beharrak asetzeko, etxebizitza klimatizazioko baldintza egokietan mantentzea, esaterako.

Aurrez aipatu denez, Eskubide Sozialetako departamentuak antzeko hitzarmen bat sinatu du dagoeneko Iberdrolarekin, eta energia-hornikuntzako beste enpresekin (elektrizitatea edo gasa) gauza bera egin nahi du.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak 2 milioi euro erabiliko ditu gizarte-larrialdiko laguntzetan, eta haren kontzeptuen artean elektrizitate- eta gas-hornikuntzako fakturak ordaintzea dago. Prestazio horiek udaletako oinarrizko gizarte-zerbitzuek kudeatzen dituzte.

Azkenik, etxebizitza birgaitzeko arloan, inguratzaile termikoa hobetzeko diru-laguntzak zabaldu izana aipatu behar da, etxebizitzaren isolamendu-maila areagotze aldera; hala, orain babestu daitekeen aurrekontuaren % 50eraino heldu ahalko dira.